

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

# **UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/ EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO**

## **PREBENTZIO ZERBITZUAREN**

### **TXOSTENA**

**2010**

## AURKIBIDEA

	<b>Or.</b>
<b>0.- SARRERA</b>	<b>3</b>
<b>1.- OSASUN ARLOA</b>	<b>6</b>
<b>1.1.- OSASUN AZTERKETAK</b>	<b>7</b>
1.1.1.- AURRETIAZKO AZTERKETAK	
1.1.2.- AZTERKETA ESPEZIFIKOAK	
1.1.3.- PROBA ESPEZIFIKOAK	
1.1.4.- ALDIAN BEHINGO AZTERKETAK	
.- UPV/EHU (guztira)	10
.- Arabako Campusa	16
.- Gipuzkoako Campusa	22
.- Bizkaiko Campusa	30
<b>1.2.- LAGUNTZA JARDUERAK</b>	<b>39</b>
1.2.1.- Arabako Campusa	40
1.2.2.- Gipuzkoako Campusa	40
1.2.3.- Bizkaiko Campusa	41
<b>1.3.- OHIKO ERITASUN KASUEN KOPURUA</b>	<b>42</b>
<b>1.4.- LAN ISTRIPUAK</b>	<b>48</b>
<b>1.5.- LANEKO GAIXOTASUNAK</b>	<b>52</b>
<b>1.6.- HERIOTZAK</b>	<b>53</b>
<b>1.7.- JARDUEREN PROGRAMA</b>	<b>55</b>
1.7.1.- TXERTATZE KANPAINAK	56
1.7.2.- LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA	57
1.7.3.- EPIDEMIOLOGIA ETA OSASUN PUBLIKOA	59
1.7.4.- PSIKOSOZIOLOGIA	59
<b>2.- ARLO TEKNIKOA</b>	<b>60</b>
<b>2.1.- PREBENTZIO JARDUEREN ANTOLAMENDUA</b>	<b>61</b>
<b>2.2.- 2010eko JARDUERA NAGUSIAK</b>	
.- ARABAKO CAMPUSA	<b>66</b>
.- GIPUZKOAKO CAMPUSA	<b>70</b>
.- BIZKAIKO CAMPUSA	<b>74</b>
<b>2.3.- INGURUMENAREN KUDEAKETA</b>	<b>79</b>
<b>3.- PRESTAKUNTZA</b>	<b>84</b>
<b>4.- ERANSKINAK</b>	<b>86</b>

0.-

SARRERA

Hona hemen Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Prebentzio Zerbitzuaren jardura nagusiak biltzen dituen txostena, 2010. urtekoa.

Lan absentismoari eta haren diagnostikoari buruzko zenbakiak aurkezteko orduan, erregistro arauak aintzat hartu ditugu.

Txostena irakurriz, 2010eko joera nagusien berri izango dugu, eta arazoan iturri edo arrazoiak identifikatzeko moduan izango gara, eta baita, horrenbestez, arazoak ikertzeko moduan ere.

Txostenak Prebentzio Zerbitzuaren Araudiaren 15. artikuluko 5. atala betetzen du: Prebentzio Zerbitzuak txosten bat idatzi behar du urtero, eta prebentzio gaietan eskumena duten agintarien esku utzi.

Txostenak dokumentazio izaera du, Lan Arriskuen Prebentzio Legeak (331/1995 Legea) eta Prebentzio Zerbitzuen Araudiak (39/1997 Errege Dekretua) ezarritakoaren esparruan. Hala, batetik, UPV/EHUK agintarien esku utzi behar du txostena, eta, bestetik, UPV/EHUKo Segurtasun eta Osasun Batzordeen aurrean aurkeztu behar du, haiek beren eskumena gauza dezaten (LAPLko 39. artikuluko 2-d atala).

## **PREBENTZIO ZERBITZUKO KIDEAK**

Prebentzio Zerbitzuko burua:	<b>Iñigo Apellaniz González</b>
Administrazioko laguntzailea:	<b>María Luisa Urruela Vallejo</b>
Osasun Arloko arduraduna:	<b>Iñaki Uruburu Irazabal</b>
Arlo Teknikoko arduraduna:	<b>Ana Escobal González</b>

**Osasun Arloa:** Oinarrizko hiru Osasun Unitate (OOU) biltzen ditu:

---

### ***Arabako Campuseko OOU***

Marina Aguayo Angulo (Laneko medikua)  
Agustín García López de Arregui (Enpresako EUD)

### ***Gipuzkoako Campuseko OOU***

M<sup>a</sup> Jose González Kareaga (Laneko medikua)  
Amaia Odriozola Uranga (Enpresako EUD)

### ***Bizkaiko Campuseko OOU***

Iñaki Uruburu Irazabal (Laneko medikua)  
Miren Muxika Zubillaga (Enpresako EUD)

## **Arlo Teknikoa:**

---

Prebentzio teknikariak:

- .- Cesar Sáiz Martínez (Arabako Campusa)
- .- Luis Escribano Sardón (Gipuzkoako Campusa)
- .- Roxana Avilés Lizama (Bizkaiko Campusa)
- .- M<sup>a</sup> Elena Ramos Alvarez (Bizkaiko Campusa)

Ingurumen kudeaketarako teknikaria:

- .- Juan M<sup>a</sup> Apaolaza Estensoro (Gipuzkoako Campusa)

**IRAKASLE ETA LANGILEAK IKASTEGIKA (2010eko abendua)**

	EME	KAT	TIT	BIT	IK	AZP	GUZTIRA
ENPRESA IKASKETEN UE	0	0	10	0	23	8	<b>41</b>
IRAKASLEEN UE	0	5	38	0	35	12	<b>90</b>
INGENIARITZAKO UE	0	6	57	1	55	26	<b>145</b>
GIZARTE LANGINTZAKO UE	0	0	8	0	18	8	<b>34</b>
FARMAZIA F.	0	19	58	0	116	39	<b>232</b>
LETREN F.	2	40	121	0	141	29	<b>333</b>
JARDUERA FISIKOAREN eta KIROLAREN ZIENTZIEN F.	0	0	1	0	54	15	<b>70</b>
ZERBITZU ZENTRALA	0	0	0	0	0	93	<b>93</b>
<b>GUZTIRA (ARABA)</b>	<b>2</b>	<b>70</b>	<b>293</b>	<b>1</b>	<b>442</b>	<b>230</b>	<b>1.038</b>
ERIZAINZAKO UE	0	0	18	0	21	12	<b>51</b>
KIMIKA F.	0	22	40	0	122	32	<b>216</b>
IRAKASLEEN UE	0	4	41	0	39	14	<b>98</b>
ARKITEKTURA GET	0	5	22	2	81	22	<b>132</b>
ENPRESA IKASKETEN UE	0	5	43	0	28	16	<b>92</b>
EIBARKO IITUE	0	0	24	0	16	13	<b>53</b>
ESKOLA POLITEKNIKOA	0	11	55	0	109	33	<b>208</b>
ZUZENBIDE F.	1	34	31	0	99	49	<b>214</b>
F eta H ZIENTZIEN F.	1	17	48	1	72	37	<b>176</b>
PSIKOLOGIA F.	1	12	34	1	72	23	<b>143</b>
INFORMATIKA F.	0	10	50	1	86	28	<b>175</b>
ZERBITZU ZENTRALA	0	0	0	0	0	114	<b>114</b>
<b>GUZTIRA (GIPUZKOA)</b>	<b>3</b>	<b>120</b>	<b>406</b>	<b>5</b>	<b>745</b>	<b>393</b>	<b>1.672</b>
ARTE EDERRETAKO F.	0	9	83	0	73	38	<b>203</b>
EKONOMIA eta ENPRESA ZIENTZIEN F.	0	44	139	0	127	63	<b>373</b>
GIZARTE eta KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN F.	0	36	96	0	179	60	<b>371</b>
IRAKASLEEN UE	0	3	79	0	62	24	<b>168</b>
NAUTIKA eta ITSAS MAKINERIA GET	0	0	25	2	10	19	<b>56</b>
INGENIARITZAKO GET	1	42	132	2	262	77	<b>516</b>
ERIZAINZAKO UE	0	6	26	1	19	12	<b>64</b>
ENPRESA IKASKETEN UE	0	10	41	0	29	19	<b>99</b>
IITUE	0	8	74	0	80	35	<b>197</b>
MEATZEEN eta HERRI LANEN INGENIARITZA TEKNIKOKO UE	0	0	26	0	46	16	<b>88</b>
LAN HARREMANEN UE	0	1	31	1	21	14	<b>68</b>
ZTF	4	130	157	1	376	98	<b>766</b>
MEDIKUNTZA ETA ODONTOLOGIA F.	1	44	133	2	492	91	<b>763</b>
ZERBITZU ZENTRALA	0	0	0	0	2	642	<b>644</b>
<b>GUZTIRA (BIZKAIA)</b>	<b>6</b>	<b>333</b>	<b>1.042</b>	<b>9</b>	<b>1.778</b>	<b>1.208</b>	<b>4.376</b>
<b>GUZTIRA (UPV/EHU)</b>	<b>11</b>	<b>523</b>	<b>1.741</b>	<b>15</b>	<b>2.965</b>	<b>1.831</b>	<b>7.086</b>

EME: Emerituak KAT: Katedradunak TIT: Titularrak IK: Irakasle kontratatuak AZP: Administrazio eta zerbitzuetako langileak

1.-

# OSASUN ARLOA

## 1.1.- OSASUN AZTERKETAK

### 1.1.1.- AURRETIAZKO AZTERKETAK

Unibertsitatean sartu diren langileen artean, 201 osasun azterketa egin ditugu, honela banaturik:

#### ARABA: 25

IITUE	1
FARMAZIA F.	3
LETREN F.	4
ERREKTOREORDETZA	9
JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIEN F.	4
IRAKASLEEN UE	4
ENPRESA IKASKETEN UE	0
GIZARTE LANGINTZAKO UE	0

#### GIPUZKOA: 56

KIMIKA F.	6
ERREKTOREORDETZA	18
UE POLITEKNIKOA	22
INFORMATIKA F.	1
PSIKOLOGIA F.	5
ENPRESA IKASKETEN UE	3
ZUZENBIDE F.	1

#### BIZKAIA: 124

EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIEN F.	5
ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA F.	5
GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN F.	5
MEDIKUNTZA ETA ODONTOLOGIA F.	20
ARTE EDERRETAKO F.	4
ZERBITZU ZENTRALA	61
IRAKASLEEN UE	4
IITUE	3
INGENIARITZAKO GET	7
LAN HARREMANEN UE	3
NAUTIKA ETA ITSAS MAKINERIA GET	1
ERIZAINZAKO UE	4
ENPRESA IKASKETEN UE	2



### 1.1.2.- AZTERKETA ESPEZIFIKOAK

3. mailako instalazio erradioaktiboetan kapsula gabeko materiala erabiltzea eta manipulatzeko (9), arrisku biologikoak (12), PVDak (1.065) eta karga eskuz manipulatzeko (2). Datu orokorretan sartu ditugu zenbaki horiek guztiak.

### 1.1.3.- PROBA ESPEZIFIKOAK

- 53 Profil ferrikoa
- 29 H. tiroideoak
- 12 Birus serologia
- 17 Beste batzuk



#### **1.1.4.- ALDIAN BEHINGO AZTERKETAK**

- .- UPV/EHU (GUZTIRA)
- .- ARABAKO CAMPUSA
- .- GIPUZKOAKO CAMPUSA
- .- BIZKAIKO CAMPUSA

**.- UPV/EHU (GUZTIRA)**

Osasun azterketek hiru atal dituzte:

- Historia klinikoa
- Azterketa fisikoa
- Proba osagarriak

Proba osagarrien atalean sartzen dira laborategiko datuak eta proba teknikoak, hala nola EKG, audiometriak eta ikusmen azterketak.

2010ean, 1.774 pertsonaren azterketa mediko arruntak egin ditugu (UPV/EHUko langileen % 25), eta UPV/EHUko langile guztiek izan dute azterketa egiteko aukera.


Datuak aztertuz gero, administrazio eta zerbitzuetako langileek agertu dute osasun azterketak egiteko interes handiena (% 37,2). Irakasleei dagokienez, ehunekoak baxuagoak dira: IK % 13,3; TIT % 31; KAT % 29,6.

Azterketen emaitzei erreparatuz, hona hemen datu aipagarrienak:


- .- Azterketa medikoa egin dutenen % 40k gehiegizko pisua dute (25etik gorako gorputz-masa indizea).
- .- % 10ek arteria hipertentsioa dute.
- .- % 14k erre egiten dute, eta % 19 erretzaile ohiak dira.
- .- % 9k anomalia elektrokardiografikoren bat dute.
- .- % 9k espirometria asalduren bat dute, patroï buxatzaile, murriztaile edo misto baten eraginez.
- .- % 40k entzumen arazoren bat dute; belarri batean, gutxienez.
- .- % 36 oftalmologoarengana joaten dira, ikusmen arazoak konpontzera.
- .- Hiperlipemiak dira asaldu arruntenak. Gehiegizkotzat hartzen da 220 mg/dl-tik gorako kolesterola. Azterketa egin dutenen % 21ek kolesterol gehiegi dute, eta % 3k, berriz, triglizerido gehiegi.

UPV/EHUko langileek oso abegi ona egiten diete aldian behingo prebentzio azterketa medikoei: begi onez ikusten dute antolakuntza (egutegia, ordutegia, erakunde laguntzaileak eta txosten medikoak), emaitzak, arretaren kalitatea, itzarote denbora, eta azterketa egiten dutenetik emaitzak jasotzen dituzten arte igarotzen den denbora. 2009ko asebetetze inkestak agerian utzi zuen hori guztia, eta langileek egunetik egunera sinetsarazten digute hala dela.



### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK (UPV/EHU)



### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK (ARABAKO CAMPUSA)





OA



**ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK**


	KAT	TIT	IK	AZP	GUZTIRA
Irakasleen UE	1	11	4	3	19
Ingeniaritzako UE	1	21	6	14	42
Gizarte Langintzako UE	0	1	5	5	11
Farmazia F.	9	24	23	12	68
Letren F.	6	28	14	13	61
Enpresa Ikasketen UE	0	0	0	3	3
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F.	0	1	5	4	10
ZERBITZU ZENTRALA	0	0	0	36	36
<b>GUZTIRA (ARABA)</b>	<b>17</b>	<b>86</b>	<b>57</b>	<b>90</b>	<b>250</b>
Kimika F.	7	16	10	16	49
Irakasleen UE	2	10	3	9	24
Arkitekturako GET	0	2	4	5	11
Erizaintzako UE	0	3	1	10	14
Enpresa Ikasketen UE	2	15	1	5	23
IITUE	0	13	5	5	23
Eskola Politeknikoa	4	28	23	21	76
Zuzenbide F.	11	10	10	19	50
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien F.	0	0	7	15	22
Psikologia	2	15	7	10	34
Informatika F.	3	21	13	16	53
ZERBITZU ZENTRALA	0	0	0	59	59
<b>GUZTIRA (GIPUZKOA)</b>	<b>31</b>	<b>133</b>	<b>84</b>	<b>190</b>	<b>438</b>
Arte Ederretako F.	1	11	2	11	25
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.	19	38	23	22	102
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	11	34	12	17	74
Irakasleen UE	1	25	6	2	34
Nautika eta Itsas Makineria GET	0	2	6	6	14
Ingeniaritzako GET	15	54	67	25	161
Erizaintzako UE	2	2	1	5	10
Enpresa Ikasketen UE	1	15	3	6	25
IITUE	5	19	11	12	47
Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE	0	11	11	6	28
Lan Harremanen UE	1	9	2	3	15
Zientzia eta Teknologia F. Medikuntza eta Odontologia F.	44	82	87	50	263
	10	18	24	24	76
ZERBITZU ZENTRALA	0	0	0	212	212
<b>GUZTIRA (BIZKAIA)</b>	<b>110</b>	<b>320</b>	<b>255</b>	<b>401</b>	<b>1.086</b>
<b>GUZTIRA (UPV/EHU)</b>	<b>158</b>	<b>539</b>	<b>396</b>	<b>681</b>	<b>1.774</b>




## **.- ARABAKO CAMPUSA**




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 ARABAKO CAMPUSA




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 LETREN F.




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 FARMAZIA F.




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 IRAKASLEEN UE




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 INGENIARITZA UE




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 GIZARTE LANGINTZAKO UE



### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 ENPRESA IKASKETEN UE




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIEN F.



# ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010


## ARABAKO CAMPUSEKO ERREKTORETZAKO AZP




■ OA egin dute ■ Ez dute OA egin

## **.- GIPUZKOAKO CAMPUSA**


### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 GIPIZKOAKO CAMPUSA




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 ARKITEKTURA GET



### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 ZUZENBIDE F.




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 INFORMATIKA F.







### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 ENPRESA IKASKETEN F.




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN F.




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 PSIKOLOGIA F.




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 KIMIKA F.




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 ESKOLA POLITEKNIKOA




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 IRAKASLEEN UE




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 EIBARKO IITUE





### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 ERIZAINZAKO UE




**ALDIAN BEHINGO OSASUN  
AZTERKETAK 2010**  
GIPUZKOAKO CAMPUSEKO ERREKTORETZAKO  
AZP




-  Osasun azterketa egin dute
-  Ez dute osasun azterketarik egin

## **.- BIZKAIKO CAMPUSA**


### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 BIZKAIKO CAMPUSA




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 INGENIARITZA UE





### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIEN F.




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 NAUTIKA ETA ITSAS MAKINERIAREN INGENIARITZA GET









### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 IITUE




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 IRAKASLEEN UE




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 MEDIKUNTZA ETA ODONTOLOGIA F.




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA F.




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEEN F.




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 ARTE EDERRETAKO F.




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 LAN HARREMANEN UE



### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2010 ERIZAINZAKO UE



**ALDIAN BEHINGO OSASUN  
AZTERKETAK 2010**  
BIZKAIKO CAMPUSEKO ERREKTORETZAKO AZP



% 32,9

% 67,1

- Osasun azterketa egin dute
- Ez dute osasun azterketarik egin

# 1.2.- LAGUNTZA JARDUERAK Kontsultak eta larrialdiak

## **KONTSULTAK ETA LARRIALDIAK**

### **1.2.1.- ARABAKO CAMPUSA**

Oinarrizko Osasun Unitateak 517 kontsulta hartu ditu, honela banaturik:

- Kontsulta medikoak eta erizaintzako kontsultak	115
- Telefono bidezko kontsultak	22
- Lan istripuen arreta	6
- Ikasle eta bekadunentzako arreta	5
- Arteria tentsioa hartzea	6
- Injekzioak	2
- Gripearearen aurkako txertoa	78
- Tetanosaren eta difteriaren aurkako txertoa	7
- Sendaketak: lehenengoa eta ondorengoak	12
- Belarrietako tapoiak ateratzea	11
- Larrialdiak	7
- Odola ateratzea	258

### **1.2.2.- GIPUZKOAKO CAMPUSA**

Oinarrizko Osasun Unitateak 1.526 kontsulta hartu ditu, honela banaturik:

- Kontsulta medikoak eta erizaintzako kontsultak	966
- Txostenak eta ziurtagiriak	22
- Farmazia zerbitzua	333
- Arteria tentsioa hartzea	62
- Tabakoa uzteko laguntza	10
- Injekzioak	6
- Gripearearen aurkako txertoa	83
- Tetanosaren eta difteriaren aurkako txertoa	5
- Beste txerto batzuk	0
- Gluzemiak	6
- Sendaketak: lehenengoa eta ondorengoak	9
- Belarrietako tapoiak ateratzea	15
- Larrialdiak	9



### 1.2.3.- BIZKAIKO CAMPUSA

Oinarrizko Osasun Unitateak 1.774 kontsulta hartu ditu, honela banaturik:

- Kontsulta medikoak eta erizaintzako kontsultak 561

- Txostenak

• Ergonomia	53
• Lanpostu aldaketak	0
• Egiaztagiriak	37
• Amatasuna	5
• Errad. ionizatzaileekin lan egiteko gaitasuna	11
• Laserrarekin lan egiteko gaitasuna	2
• Lanaldi bereziak	8
• Lanak murriztea	2
• Laneko gaixotasunak	3
• Behin betiko ezintasuna	4
• Elbarrientzako egokitzapenak	8

- Ziurtagiri mediko ofizialak	1
- Tabakoa uzteko laguntza	11
- Farmazia zerbitzua	576
- Arteria tentsioa hartzea	174
- Injekzioak	32
- Sendaketak: lehenengoa eta ondorengoak	34
- Belarrietako argizari tapoiak ateratzea	35
- Larrialdiak	2
- Larrialdietarako kanpo laguntza	4
- Beste prozedura batzuk	96
- Gripearren aurkako txertoa	317
- Tetanosaren eta difteriaren aurkako txertoa	47
- B hepatitisaren aurkako txertoa	2
- A hepatitisaren aurkako txertoa	2
- Beste txerto batzuk	1
- Tifusaren aurkako txertoa	2
- Osteopatia	248

# 1.3.- OHIKO ERITASUN KASUEN KOPURUA

## ALDI BATERAKO EZINTASUNA (ABE)

Taula konparatibo honetan, aldi baterako ezintasunen ondoriozko baja kopuruak bildu ditugu, hilabeteen eta ezintasun motaren arabera sailkatuz:

Hilabetea	2009					2010				
	GA	LI	A	M	Guzt.	GA	LI	A	M	Guzt.
U	109	4	15	40	168	87	3	12	34	136
O	88	8	11	37	144	121	8	5	30	164
M	98	5	11	39	153	116	2	12	34	164
A	77	1	13	25	116	104	5	14	32	155
M	82	3	8	25	118	99	1	15	21	136
E	83	0	7	13	103	94	0	8	17	119
U	54	2	11	10	77	50	0	10	9	69
A	52	1	17	9	79	39	2	12	7	60
I	117	5	19	35	176	89	5	10	30	134
U	156	0	13	53	222	102	0	9	23	134
A	169	0	15	61	245	95	3	11	35	144
A	73	2	12	21	108	73	3	13	15	104
<b>GUZTIRA:</b>	<b>1.158</b>	<b>31</b>	<b>152</b>	<b>368</b>	<b>1.709</b>	<b>1.069</b>	<b>32</b>	<b>131</b>	<b>287</b>	<b>1.519</b>

**GA** = Gaixotasun arrunta

**LI** = Lan istripua


**A** = Amatasuna

**M** = Muface

**Guzt.** = Guztira


Enpresak aldi baterako ezintasun bajaren agiri medikoak jasotzen ditu, eta, 1998ko irailaren 18ko Agindu bidez (1998ko irailaren 25eko BOE), agiri horretan ezabatu egin da diagnostikoaren edo ezintasunaren arrazoia adierazten zuen atala. Beraz, agindua indarrean dagoenetik, Lan Osasun Zerbitzuek ez dute halako informaziorik jasotzen, eta ezin dute bajaren zioa jakin, pazientearen edo haren familia medikuaren laguntzarekin ez bada.

## ALDI BATERAKO EZINTASUNA BAJA KOPURUA




GUZTIRA: 1.519

## ALDI BATERAKO EZINTASUNA GAIXOTASUN ARRUNTAK




GUZTIRA: 1.069

## ALDI BATERAKO EZINTASUNA MUFACE





GUZTIRA: 287


## ALDI BATERAKO EZINTASUNA LAN ISTRIPUAK




GUZTIRA: 32



## ALDI BATERAKO EZINTASUNA MUFACE



## ALDI BATERAKO EZINTASUNA LAN ISTRIPUA



# 1.4.- LAN ISTRIPUAK



**LANGILE MOTA****ISTRIPUA*****In itinere gertatutako istripuak***


Zer	GUZTIRA	AZPko langileak	Irakasle eta ikertzaileak
Erorikoa	4	3	1
Trafiko istripua	4	4	0
Gehiegizko ahalegina	1	1	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>9</b>	<b>8</b>	<b>1</b>

***In itinere gertatu ez diren istripuak***


Zer	GUZTIRA	AZPko langileak	Irakasle eta ikertzaileak
Objektu mugiezin baten kontrako kolpea	9	9	0
Gehiegizko ahalegina	7	7	0
Objektu mugikor baten kontrako kolpea	5	3	2
Harrapatuta gelditzea	1	1	0
Ebakia	1	1	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>23</b>	<b>21</b>	<b>2</b>



Ikus MUTUALIAren 2010eko ISTRIPUEN AZTERKETA eranskina

### LAN ISTRIPUAK CAMPUSKA 2010



### BAJA HARTZEA ERAGIN DUTEN ISTRIPUAK 2010





## 1.5.-

# LANEKO GAIXOTASUNAK

2010. urtean, ez da laneko gaixotasunen ondoriozko bajaran izan. Hala ere, hiru gaixotasun kasu atzeman ditugu lanari loturik: ahots harietako noduluak (bi kasu) eta produktu kimikoekin lan egitearen ondoriozko anosmia (kasu bat).

1.6.-

# HERIOTZAK

## 2010ean hildakoak

<b>CAMPUSA</b>	<b>IKASTEGIA</b>	<b>LANPOSTUA</b>	<b>ADINA</b>	<b>SEXUA</b>
Bizkaia	ARTE EDERRETAKO F.	ELKARTUA	58	Gizona
Gipuzkoa	IRAKASLEEN UE	TITULARRA	67	Gizona
Gipuzkoa	KIMIKA F.	ATXIKIA	58	Gizona
Bizkaia	MEDIKUNTZA F.	TITULARRA	67	Gizona
Araba	INGENIARITZAKO UE	TITULARRA	50	Gizona
Bizkaia	MEDIKUNTZA F.	KATEDRADUNA	55	Gizona
Bizkaia	MEDIKUNTZA F.	EMERITUA	72	Gizona

1.7.-

# JARDUEREN PROGRAMA

## 1.7.1.- TXERTATZE KANPAINAK

### .- HEPATITISAREN AURKAKO TXERTOAK JARTZEKO KANPAINA


Prebentzio Zerbitzuaren Osasun Arloak B hepatitisaren birusaren aurkako txertoak jartzen jarraitu du, eta 3 dosi eman ditu 2010ean.

### .- TETANOSAREN AURKAKO TXERTOAK JARTZEKO KANPAINA

2010ean, tetanosaren aurkako txertoa jartzen jarraitu dugu (57 dosi). Horretarako, difteria-tetanosa txertoa erabili dugu.

### .- GRIPEAREN AURKAKO TXERTOAK JARTZEKO KANPAINA

Gripearen aurkako XVI. kanpainan, 478 pertsonak hartu dute txertoa.



### .- BESTE TXERTO BATZUK

Guztira, 5 dosi jarri ditugu.



## 1.7.2.- LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

### .- SEGURTASUN ETA OSASUN BATZORDEA

Prebentzio Zerbitzuaren Osasun Arloko ordezkariak Lan Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileretan parte hartu dute, administrazioko langileen lan baldintzak arautzeko akordioan eta UPV/EHUko langileen hitzarmen kolektiboan zehaztuta dagoen moduan.

Beren lanpostuetan eserleku ergonomikoak erabiltzeko eskaera egin zuten langile batzuek Prebentzio Zerbitzuaren Osasun Arloan, eta, horretarako, traumatologiako txosten batzuk aurkeztu zituzten. Historial medikoak aztertu ondoren, lantokiak egokitu eta material ergonomikoa instalatu dugu, Campuseko Gerenteordetzaren laguntzaz.

### .- PREBENTZIO ZERBITZUAREN WEBGUNEA MANTENTZEA



### .- BESTE BATZUK

.- Ohiko osasun azterketak eta osasun azterketa espezifikokoak, txertoak, protokoloak jarraituz.

.- Lan istripuak aztertzea eta haien jarraipena egitea, mutualitatearekin harremanetan jarrita.

.- Familia medikuarekin, espezialistekin edo ikuskari medikoekin harremanetan jartzea, ezintasunak eta lanpostu aldaketak aztertzeko.

.- Langileen Gerenteordetzarekin harremanetan jardutea osasun arazoen ondoriozko lanpostu aldaketak, irakasle eta ikertzaileen ordezkapenak, baimenak eta lizentziak kudeatzeko. Prebentzio Zerbitzuaren Osasun Arloak lan baldintzak hobetzeari buruzko erabaki erregulatzailan parte hartu du (2005eko azaroaren 18ko erabakia), eta baita egoera jakin batzuetako lanaldi bereziei buruzko erabakian ere (2005eko ekainaren 22ko erabakia, langileen berdintasun batzordeak emana).

.- Amatasuna babestea.

[http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevct/eu/contenidos/informacion/proteccion\\_maternidad/eu\\_notif/notificacion\\_embarazo.html](http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevct/eu/contenidos/informacion/proteccion_maternidad/eu_notif/notificacion_embarazo.html)



.- Unibertsitateko kide guztien larrialdiei arreta medikoa ematea.

.- Ikastegiko botika kutzak mantentzea.

[http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevct/eu/contenidos/informacion/intrehu\\_botiquines/eu\\_info/reposicion\\_botiquines.html](http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevct/eu/contenidos/informacion/intrehu_botiquines/eu_info/reposicion_botiquines.html)

.- OSALANen ikuskaritza saioetan, ikuskariei laguntza ematen zaie beren lana betetzeko.

.- Bulegoko materiala erosteko prozesuetan parte hartzea.

.- Lantokiak egokitzea.

.- Katalogatutako eta katalogatu gabeko substantzia kimikoekin egiten diren eragiketen berri emateko urteko galdetegia betetzea.

.- Lantokietara bisitak egitea, ergonomia azterketak egiteko eta osasun arrazoiek eragindako aldaketak balioesteko.

.- Tabakismoaren aurkako borroka: erretzaileei tratamendu bat eskaintzea, haiek hala eskatuz gero.



## **.- BERRIAK**

.- Zerbitzuen Karta osatzea, UPV/EHUK Euskalit-en laguntzaz sortutako eredu espezifikoari jarraituz. UPV/EHUren eta Euskaliten ebaluazio pilotuan parte hartzea, 2010eko urriaren 19an.

.- Lan Arriskuen Prebentzio Planaren (UPV/EHU) kudeatze sistemaren baitako prozedurak lantzeko lan taldean parte hartzea.

.- Medikuarekin hitzordua eskatzeko aukera informatizatzea.

<https://lgpx09.lg.ehu.es/calendario.nsf>



## **1.7.3.- EPIDEMIOLOGIA ETA OSASUN PUBLIKOA**

Osasun Sailarekin lankidetzan aritzea.

## **1.7.4.- PSIKOSOZIOLOGIA**

Prebentzio Zerbitzuko buruak zenbait ekimen bete ditu psikosoziologiaren arloan (Aldezlea izendatu gabe baitago), 21.3 artikuluari jarraituz (UPV/EHUren eta erakunde sindikalen arteko akordioa, jazarpen gaietan prebentzioa eta soluzioak adosteko). Halaber, Arbitraje Batzordea abian jarri dugu.

2.-

# ARLO TEKNIKOA

## **2.1.- PREBENTZIO JARDUEREN ANTOLAMENDUA**

UPV/EHUK, errektorearen 2003ko apirilaren 7ko erabakiaren bitartez, unibertsitatearen beraren Prebentzio Zerbitzua antolatzea erabaki zuen (lau espezialitateak barne), Prebentzio Zerbitzuen Araudiari jarraituz (39/1997 ED).

## **2.2.- 2010eko JARDUERA NAGUSIAK**

### **.- ARRISKUAK JARDUERAKA EBALUATZEA**

Kasu gehienetan (baita UPV/EHUn ere), Laneko Segurtasunaren eta Higienearen Institutu Nazionalaren (LSHIN) metodoa erabili ohi da arriskuak ebaluatzeko. Arrisku bat ebaluatzeko orduan garrantzi handiko bi kontzeptu uztartzean datza metodoa:

- Arrisku faktore jakin batzuk kalte bihurtzeko aukera
- Kalteen neurria (ondorioak)

Kontzeptu horiei hiru balioespen maila aplikatuta, bost arrisku maila defini daitezke:

- Arrisku onartezinak
- Arrisku garrantzitsuak
- Arrisku arinak
- Arrisku onargarriak
- Garrantzi apaleko arriskuak

UPV/EHUn, lantokika, taldeka, arriskuka eta, azkenik, jardueraka ebaluatzen ditugu arriskuak, Intercampus Segurtasun eta Osasun Batzordeak onetsitako metodoa erabiliz.

Aurretik lantokika, taldeka eta arriskuka lan egin dugunez, 2010ean, jardueraka ebaluatu ditugu arriskuak. Alegia, irakasle eta ikertzaileen, eta administrazio eta zerbitzuetako langileen jarduerak ebaluatu ditugu.

Langile batzuek, ordea, jarduera batean baino gehiagotan parte hartzen dute. Esate baterako, irakasle edo ikertzaile batek, irakaskuntza teorikoa emateaz gain, beste jarduera batzuk ere izan ditzake: kudeaketa, ikerketa, landa praktikak, eta abar.

Hala, langile guztiek eskura dute, langileen atarian, beren lanari lotutako arriskuei buruzko informazioa, eta gerta daiteke zenbaitetan jarduera batean baino gehiagotan parte hartzea.

**JARDUERAK**

QCA	Kimika	Kimika
BIO	Biotecnología	Bioteknologia
GEO	Geología	Geologia
EYE	Electricidad y electrónica	Elektrizitatea eta elektronika
MEC	Mecánica	Mekanika
MED	Ciencias de la salud	Osasunaren zientziak
NAV	Actividades con embarcaciones	Jarduerak itsasontziekin
RIO	Radiaciones ionizantes	Erradiazio ionizatzailea
RNI	Radiaciones no ionizantes	Erradiazio ez-ionizatzailea
ANI	Trabajo con animales de experimentación	Lana esperimantazio-animaliekin
BEL	Bellas artes	Arte Ederrak
DOT	Docencia teórica	Irakaskuntza teorikoa
ADM	Actividades administrativas	Administrazio-jarduerak
AAP	Actividades con atención al público	Herritarren arretarako jarduerak
DES	Desplazamientos	Lekualdatzeak
INS	Inspecciones	Ikuskaritzak
MMC	Manipulación manual de cargas	Kargak eskuz manipulatzeko
ACL	Auxiliar de clínica	Klinikako laguntzailea
GES	Actividades de gestión	Kudeaketa-jarduerak
MTO	Mantenimiento	Mantentze-lanak
PVD	Trabajo con PVD	Lana PVDrekin
CAM	Trabajo de campo	Landa-lana
AJE	Trabajo en instalaciones ajenas a la UPV/EHU	Lana UPV/EHUz kanpoko instalazioetan
JAR	Jardinería	Lorezaintza
CAR	Carpintería	Aroztegia
PIN	Pintura	Margolaritza
ELE	Electricidad	Elektrizitatea
ODO	Clínica Odontológica	Klinika odontologikoa
FON	Fontanería	Iturgintza
SOL	Soldadura	Soldadura

Laborategiko teknikariei eta tailer-irakasleei dagokienez, oso lan espezifikoak egiten dituztenez, lan arriskuen prebentzioko goi teknikari baten bisita jaso dute, eta, higie inkesta baten bitartez, arrisku espezifikoak ebaluatu dituzte.

## **.- LANEKO ARROPA: LABORATEGI ETA TAILERRETAN LAN EGITEKO MANTALAK**

2010eko urritik aurrera, zerbitzu berri bat jarri dugu abian: laneko arropa (mantalak) ematea gai kimiko kutsakor arriskutsuekin (oso toxikoak, toxikoak, kantzerigenoak, mutagenoak eta agente biologikoak) lan egiten duten unibertsitate langileei (honako lege hauek aplikatuz: Lan Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legea, Agente Biologikoei buruzko 664/1997 ED, Agente Kantzerigenoei buruzko 665/1997 ED, Kimika Arriskuei buruzko 374/2001 ED, eta Agente Mutagenoei buruzko 349/2003 ED). UPV/EHUko

ikastegietako laborategietan lanean diharduten langileek oso ongi hartu dute zerbitzu berria.

Honako ikastegi hauetan baliatzen dute zerbitzu berria:

CAMPUSA	IKASTEGIA
ARABA	CEIA Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroa Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola Farmazia Fakultatea Arabako Letren Fakultatea Prebentzio Zerbitzua
GIPUZKOA	Korta eraikina Kimika Fakultatea Donostiako Eskola Politeknikoa Prebentzio Zerbitzua
BIZKAIA	Erizaintzako Eskola Nautika eta Itsas Makineria GET Bilboko Ingeniaritza GET Bilboko Ingeniaritza Teknikoko UE Animaliategia Arte Ederretako Fakultatea Zientzien Fakultatea Medikuntza Fakultatea Prebentzio Zerbitzua

## **.- SUBSTANTZIA ARRISKUTSUEKIN LAN EGITEKO BAIMENA**

Drogen eta legez kanpoko produktuen sintesia egiteko erabil daitezkeen substantziekin lotutako dokumentazioa izapidetu dugu Barne Ministerioan.

Katalogatutako eta katalogatu gabeko substantziekin lan egiten duten operadoreei buruzko urteko galdetegiak bete eta Barne Ministeriora bidali ditugu.

Datuak bildu ditugu, eta jarduerari lotutako baimena eta Katalogatutako Substantzien Inskripzioaren Ziurtagiria berritzeko dokumentazioa prestatu dugu.

## **.- AUTOBABESERAKO PLANAK EGUNERATZEA**

Preskripzio teknikoaren orria prestatu dugu planak eguneratzeko eta autobabeserako planen formatura egokitzeko, EHAA 2010eko abenduaren 14an argitaratutako dekretu berriari jarraituz.

## **.- ENPRESA JARDUERAK KOORDINATZEA**

Urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuak (Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena) ezarritakoari jarraituz, enpresa koordinazioko sistema bat ezarri dugu, laneko segurtasunaren eta osasunaren arlokoa, UPV/EHUn lan egiten duten enpresen (enpresa kontratistak eta azpikontratistak, erakunde bazkideak, langile autonomoak, administrazio kontzesioak, eta abar) lan arriskuak desagerraraztea edo gutxitzea sustatzeko edo zeregin horretan laguntzeko. Horri esker, unibertsitateko kideen eta kanpo enpresetako langileen segurtasuna eta osasuna modu eraginkor batean babestea bermatu dugu, gaur egungo legeei jarraituz eta enpresa koordinazioko neurri egokiak aplikatuz.

Honako informazio hau partekatu dugu:

1. **Egin beharreko lanen** deskripzioa.
2. Lanak egitean sortzen diren **arriskuak ebaluatzea**.
3. **Langileen zerrenda: TC1 eta TC2**.
4. Lan arriskuen **prebentzio plana**, Lan Arriskuen Prebentzioaren Legeak eta haren xedapen gehigarriek diotenari jarraituz.
5. UPV/EHUn lan egingo duten langileei **informazioa** ematea beren lanean izango dituzten segurtasun eta osasun arriskuei buruz, eta baita arrisku horiei aurre egiteko babes eta prebentzio neurriei buruz ere.
6. Segurtasun eta osasun arloko **prestakuntza ziurtagiriak** ematea UPV/EHUn edo UPV/EHUrentzat jarduerak egiten dituzten langileei.
7. **Babes neurriak**: UPV/EHUn edo UPV/EHUrentzat jarduerak egiten dituzten langileek erabili beharreko NBEen eta lan baliabideen zerrenda, norbanakoaren eta lan baliabideen babesari buruzko legeak (indarrean daudenak) betez.
8. **Prebentzioa antolatzeko eredia**: Prebentzio zerbitzu propioa edo kanpoko.
9. **Harremanetarako pertsona bat**, UPV/EHUn segurtasun eta osasun koordinatzailearen lana betetzeko (helbidea, telefonoa, faxa eta posta elektronikoa izango du).
10. **Larrialdietako jokabidea eta neurriak**: Antolaketa.
11. **Osasuna zaintzea**: Gaitasun medikoaren ziurtagiriak, UPV/EHUn edo UPV/EHUrentzat jarduerak egiten dituzten langileentzat.
12. **Erantzukizun zibileko aseguru**.



## **AURKIBIDEA CAMPUSKA**

- 1.- Antolakuntza paritarioa. Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilerak
- 2.- Prebentzio jardueren plangintza egitea
- 3.- Arriskuak ebaluatzea
- 4.- Prebentzio neurriak hartzea
- 5.- Enpresa jarduerak koordinatzea
- 6.- Larrialdi planak
  - 6.1.- Larrialdi planen txostenak eguneratzea
  - 6.2.- Ezarpena: prestakuntza eta ebakuazio simulazioak
- 7.- Aldian behingo kontrolak. Segurtasun ikuskatzeak
- 8.- Arauzko ikuskatzeak
- 9.- Higiene kontrolak
- 10.- Istripuak eta gertakariak ikertzea
- 11.- Beste batzuk

## ARABAKO CAMPUSA

### 1.- Antolakuntza paritarioa. Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilerak

2010. urtean, Segurtasun eta Osasun Batzordeak lau bilera egin ditu, honako egun hauean:

- Lehen bilera: 2010eko otsailaren 4an
- Bigarren bilera: 2010eko maiatzaren 13an
- Hirugarren bilera: 2010eko urriaren 5ean
- Laugarren bilera: 2010eko abenduaren 16an

### 2.- Prebentzio jardueren plangintza egitea

2010eko lehen hiruhilekoan, Arabako Campuseko Gerenteordetzaren laguntzaz, urteko prebentzio jardueren plangintza egin dugu.

### 3.- Arriskuak ebaluatzea

2010eko lehen hiruhilekoan, arriskuen ebaluazioari buruzko informazioa eguneratu dugu Arabako Campusean, lantokiz lantoki.

Horretaz gainera, urteko azken hiruhilekoan, **arriskuak jardueraka ebaluatu ditugu**, eta 27 pertsona bisitatu ditugu, banan-banan.

### 4.- Prebentzio neurriak hartzea

Prebentzio neurrien jarraipena egin dugu, 2009an campusean egindako simulazioen emaitzak aintzat harturik. Prebentzio neurrien plangintza egiteko, Arabako Campuseko Gerenteordetzaren, Arkitektura eta Obra Zerbitzuaren eta ikastegien laguntza jaso dugu.

Hona hemen 2010ean Arabako Campusean hartu ditugun prebentzio neurriak, ikastegika:

- Ingeniaritzako UEko neurri zuzentzaileak
  - Zenbait CPI elementu konpondu ditugu, 2009ko simulazioaren emaitzak aintzat harturik.
  - Eskolako hall nagusitik dorrera doazen atea ebakutzeko irekiera zentzuz aldatu dugu.
- Las Nieves ikasgelategiko neurri zuzentzaileak
  - Zenbait CPI elementu konpondu ditugu, 2009ko simulazioaren emaitzak aintzat harturik.
  - Sarrerako patioa garbitu dugu, larrialdi irteeretara jaisten diren arrapalak barne.

- Letren Fakultateko neurri zuzentzaileak
  - Letren Fakultateko eta Gizarte Langintzako eraikin erantsiaren barne patioako ate baten irekiera zentzuz aldatu dugu.
  - Letren Fakultateko eraikin erantsiko CPI instalazioa hobetu dugu.
  - Sirena gehiago jarri ditugu; zehazki, behe solairuko eta lehen solairuko ikasgelen muturreko korridoretan.
- Farmazia Fakultateko neurri zuzentzaileak
  - Higiene neurrien emaitzak aintzat harturik, bi gas bitrina instalatu ditugu laborategi batean.
- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko neurri zuzentzaileak
  - Eraikin nagusia eraberritzeko lanak hasi ditugu, eraikinak indarreko eraikitze arauak bete ditzan.

Arabako Campuseko ikastegi guztietan, zaintza sistemen eta suteak detektatzeko sistemen koordinazio neurriak hobetzeko inplementazioen harira, zenbait aldaketa egin ditugu suteak detektatzeko zentzuan eta komunikazio sarearen konfigurazioan.

## **5.- Enpresa jarduerak koordinatzea**

Enpresa jarduerak koordinatu ditugu campusean proiekturik ez duten zerbitzu, hornitzaile eta obretan:

- Garbiketa enpresaren jardueren jarraipena egin dugu.
- Erreprografia zerbitzuen adjudikaziodunaren jardueren jarraipena egin dugu.

Campuseko obretako jarduerak koordinatu ditugu (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea eraberritzeko lanak). Segurtasun arloko bisitak egin ditugu Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatera, segurtasuna eta osasuna koordinatzeko neurriak betetzen ote diren egiaztatzeko. Halaber, arauen protokolo bat eratu dugu, obrak amaitzeari begira koordinazio neurriak zehazteko (2010. urtearen amaieran edo 2011ren hasieran amaitu dira obrak).

## **6.- Larrialdi planak**

### **6.1.- Larrialdi planen txostenak eguneratzea**

Honako larrialdi plan hauek eguneratu ditugu:

- Pabiloia
- Farmazia Fakultatea

### **6.2.- Ezarpena: prestakuntza eta ebakuazio simulazioak**

Hona hemen 2010eko simulazioen eta larrialdi planak eguneratzeko aurreikuspenen taula:

IKASTEZIA	SIMULAZIOAREN DATA	LARRIALDI EGUNERATZEA	PLANAK
MEDIKUNTZAKO IRAKASGUNEA	2010eko azaroaren 24a	2011ko maiatza	
INGENIARITZAKO UE	2010eko irailaren 27a	2010eko urtarrila	
IKASGELATEGIA	2010eko azaroaren 26a	2012ko abendua	
PABILOIA	2010eko maiatzaren 7a	2010eko apirila	
GIZARTE LANGINTZA	2010eko urriaren 19a	2011ko urtarrila	
ERREKTOREORDETZA	2010eko maiatzaren 14a	2011ko abendua	
FARMAZIA	2010eko azaroaren 12a	2010eko abendua-2011ko urtarrila	
LETREN F. 1	2010eko abenduaren 21a	2011ko otsaila	
LETREN F. 2	2010eko abenduaren 3a	2011ko otsaila	
JARDUERA FISIKOAREN KIROLAREN ZIENTZIEN F. ETA	2011ko lehen hiruhilekoa	2011ko urtarrila	
ENPRESA IKASKETAK	2010eko abenduaren 14a	2011ko abendua	
IRAKASLEEN ESKOLA	2010eko azaroaren 29a	2011ko otsaila	

Arabako Campusean, Sercoin enpresak egiten ditu suteen aurka babesteko sistemaren instalazioa, berrikuspena eta aldi behingo kontrolak; 2010ean, ez dago nabarmentzeko konturik. Horretaz gainera, suteak zaintzeko eta detektatzeko sistemen elementuak elkarren artean hobeki koordinatzeko asmoz, 2010eko ekainean eta uztailean, zenbait bilera egin dira, eta lan protokolo bat ezarri. Halaber, 23007-12:2009 araudi berriari jarraituz, detekzio sistemek bete beharreko ildo nagusiak zehaztu dira.

### **7.- Aldian behingo kontrolak. Segurtasun ikuskatzeak**

Arkitektura eta Obra Zerbitzuak definitzen ditu era horretako ikuskatzeak, Prebentzio Zerbitzura iristen diren edo/eta Arlo Teknikoak eraikinetako arriskuak mantentzeko eta kontrolatzeko egiten dituen ikuskatzeetan sortzen diren eskakizunen arabera.

### **8.- Arauzko ikuskatzeak**

Arkitektura eta Obra Zerbitzuak definitzen ditu era horretako ikuskatzeak.

## 9.- Higiene kontrolak

Ez da beharrezkoa izan inolako higiene neurririk hartzea.

## 10.- Istripuak eta gertakariak ikertzea

Baja hartzea eragin duten istripu guztiak ikertu ditugu.

## 11.- Beste batzuk

Ingurumenaren kudeaketa hobetzeko atalean, Ekoscan ziurtagiria lortzeko lanak hasita daude Errektoreordetzan, Pabiloian eta Las Nieves ikasgelategian.

2010ean, IIAGren 11 laborategi bisitatu ditugu, agente biologikoekin eta GEOekin lan egiteko egokitasun ziurtagiria lortzeko neurri zuzentzaileak zehazteko asmoz, halakorik behar izanez gero. Halaber, IIAGko 3. Euste Maila laborategi berriko instalazioak zertan diren ezagutzeko bisita bat egin dugu. Hona hemen, zehatz-mehatz, zein lokal bisitatu ditugun:

<b>Ikastegia</b>	<b>Laborategia</b>	<b>EM</b>
IIAG	1.07	2
IIAG	1.08	2
IIAG	1.09.1; 1.09.2; 1.09.3; 1.09.4; 1.09.5; 1.09.6; 1.09.7	2
IIAG	01A17.2	
IIAG	01A17.5	

2010ean, irisgarritasunarekin lotutako hainbat alderdi landu ditugu, Arabako Campuseko aplikazio eremua egiaztatze aldera; betiere, eraikinen eraikuntza urtea, legeak eta abar kontuan hartuta.

## **GIPUZKOAKO CAMPUSA**

### **1.- Antolakuntza paritarioa. Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilerak**

Gipuzkoako Campuseko bileretan parte hartu dugu. Lau bilera izan dira guztira, indarreko araudiari jarraituz. Bilerak honako egun hauetan izan ziren:

- 2010eko martxoaren 16an
- 2010eko ekainaren 15ean
- 2010eko urriaren 5ean
- 2010eko abenduaren 14an

### **2.- Prebentzio jardueren plangintza egitea**

2010eko ekainaren amaieran, Arabako Campuseko lan arriskuen prebentziorako teknikaria Gipuzkoako Campusera joan zen, behin-behinean.

Hiruhilekoko campus batzordeetan, prebentzioaren kudeaketaren arloko ekintzak garatu ditugu, eta baita etorkizuneko prebentzio ekintzak azaldu ere.

### **3.- Arriskuak ebaluatzea**

2010. urtearen amaieran, arriskuak jardueraka ebaluatu ditugu. Zentro esperimentaletako laborategietako teknikariei higienari buruzko inkesta bat egin diegu, eta arrisku espezifikoak dituzten beste lantoki batzuk ere ebaluatu ditugu; nabarmentzekoa da Mantentze Zerbitzuko langileen ebaluazioa.

### **4.- Prebentzio neurriak hartzea**

Diphoterine-a jarri dugu honako eraikin hauen atezaindegietan: Kimika Fakultatea, Korta I+G+B zentroa eta Eskola Politeknikoan.

### **5.- Enpresa jarduerak koordinatzea**

Zentro mistoa: CSICeko Prebentzio Zerbitzuko buruarekin bildu gara, enpresa jarduerak koordinatzeari buruz hitz egiteko; zehatzago, larrialdi planei eta lan istripuei buruz.

Campusa garbitzen duen enpresarekin bildu gara.

### **6.- Larrialdi planak**

#### **6.1.- Larrialdi planen txostenak eguneratzea**

2010ean, ez dugu larrialdi planik eguneratu, ez baita beharrezkoa izan. 2011n, berriz, hamahiru plan eguneratuko ditugu, eta Carlos Santamaría eraikin eraiki berriko larrialdi plana prestatuko dugu (liburutegia hartuko du eraikin horrek).

## 6.2.- Ezarpena: prestakuntza eta ebakuzio simulazioak (larrialdi planen araberrakoak). Autobabeserako eskuliburuak

Larrialdietarako ekipoak eguneratuz joan gara, pixkanaka.

Zuzenbide Fakultatean, “Hemen zaude” planoak banatu ditugu, korridoreetan eta gune komunetan jar ditzaten.

Zuzenbide Fakultatean, ebakuzioei buruzko argibideak banatu ditugu, korridoreetan eta gune komunetan jar ditzaten.

Korta zentroan eta Barriola ikasgelategian, “Hemen zaude” planoak banatu ditugu, korridoreetan eta gune komunetan jar ditzaten.

Bi egunetan, sei txandatan, benetako sua itzaltzeko ikastaroak egin ditugu, eta campuseko ikastegietako langileak etorri dira.

Langileek telefonoguneak erabiltzen ikas dezaten, zenbait ikastaro antolatu ditugu ikastegiz ikastegi, eta ekipoak erabiltzeko gidak banatu ditugu.

Zuzenbide Fakultatean, ikastegiak berak hala eskatuta, Gipuzkoako Campuseko lan arriskuen prebentziorako teknikariak bi ikastaro espezifiko eman ditu Larrialdi Plana ezagutzera emateko.

IKASTEGIA	SIMULAZIOAREN DATA	LARRIALDI PLANAK EGUNERATZEA
KIMIKA F.	2010-05-20	2008ko apirila
ESKOLA POLITEKNIKOA	2010-12-01	2009ko urtarrila

## 7.- Aldian behingo kontrolak. Segurtasun ikuskatzeak

Ofizioz, zenbait gune ikuskatu ditugu, hala nola Psikologia Fakultateko fatxadaren itxitura sistema.

## 8.- Arauzko ikuskatzeak

Industria arloko araudia bete behar duten guneak ikuskatu ditugu, Arkitektura eta Obra Zerbitzuak kudeatuta.

## 9.- Higiene kontrolak

### Esperientzia Gelak

Amianto neurketak egin ditugu.

Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola, Eskola Politeknikoa  
Administrari lanpostu baten higiene ezaugarriak.

Ikasleen laborategi batean, konpresio saiakuntzak egiteko makina, zilarbizi lurrina igortzen duena: higiene eta segurtasun ezaugarriak.

## **10.- Istripuak eta gertakariak ikertzea**

Laburki eta gutxi gorabehera azaltzeko, istripuen % 78k ez dute bajarik eragin, eta % 22k, aldiz, bai. Istripuen % 40 *in itinere* gertatu dira; % 21 kolpeen ondorioak dira; % 18, berriz, erorikoak; % 9, ebakiak; eta gainerakoak, azkenik, harrapatuta gelditu direnak, erredurak eta kargaren batek azpian harrapatuta gelditu direnak.

Istripuak eta gertakariak ikertu ditugu, eta prebentzio neurriak eta neurri zuzentzaileak proposatu, bai tekniko-informatiboak, bai antolakuntzari buruzkoak.

## **11.- Beste batzuk**

### A.- Orain arteko txostenen zerrenda (hirugarren batek eskatuak dira gehienak)

#### Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola, Eskola Politeknikoa

Gorago aipatutako makina ixtea.

Ebakuazio guneetan armairuak jartzea bideragarri den edo ez ikustea.

Armairuak jarri ondoren, armairuak ebakuazio guneetan jartzea bideragarri den edo ez ikustea.

Ebakuazio guneetan mahai eta aulkiak jartzea bideragarria den edo ez ikustea.

Agente atmosferikoekiko zeharkako balizko kontaktuaren aurkako babesa.

Laborategi teknikari bakar batentzako bulegoa ixtea, eta gainerakoetara zabaltzea.

#### Kimika Fakultatea

Biosegurtasunerako kanpai bat kokatzea eta jartzea.

Presio gas botilak kanpoan pilatzeko arriskua.

Segurtasun oinetakoak erabiltzea.

#### Korta zentroa

EMNko eremu magnetikoaren ezaugarriak.

Hondakin eta lehengai biltegiko higiene ezaugarriak.

X izpien difraktometro homologatuaren higiene ezaugarriak.

#### Irakasleen Eskola

Obrek zarata eta hautsa eragin dute.

#### Arkitektura Eskola

Obrak direla eta, bizikletentzako aparkaleku kopurua gutxitu egin da.

#### Psikologia Fakultatea

Fatxadaren estalkia erori egin da.

Oro har, aireztatze falta eta bero handia.



Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Oro har, aireztatze falta eta bero handia.

Erizaintzako Eskola

Larrialdietarako atea beste modu batera erabiltzea.

Harlanduzko lanak adjudikatzeko, larrialdi planak egiteko eta CPI instalazioak mantentzeko planak egiteko batzorde teknikoetan egon gara.

Lan arriskuen prebentziorako teknikariak Gipuzkoako Campuseko langile berri guztiei harrera egiten die; besteak beste, larrialdiei aurre egiteko antolamenduaren eta baliabide teknikoen berri ematen die.

## **BIZKAIKO CAMPUSA**

### **1.- Antolakuntza paritarioa. Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilerak**

2010eko batzordeetan parte hartu dugu. Zehazki, lau bilera izan dira, indarreko araudiari jarraituz. Honako egun hauetan izan dira bilerak:

- 2010eko martxoaren 22an
- 2010eko ekainaren 21ean
- 2010eko irailaren 14an
- 2010eko abenduaren 14an

### **2.- Prebentzio jardueren plangintza egitea**

Bizkaiko Campuseko Gerenteordetzaren laguntzaz, prebentzio jardueren plangintza egin dugu.

Bizkaiko Campuseko zenbait eraikinetako arriskuei buruzko txostenak egin ditugu, prebentzio neurriak kontuan hartuta.

### **3.- Arriskuak ebaluatzea**

Zentro esperimentaletako laborategietako teknikariek higienari buruzko inkesta egiteko bisitak egin ditugu. Halaber, arrisku espezifikoak dituzten beste lantoki batzuk ere ebaluatu ditugu; nabarmentzekoa da Mantentze Zerbitzuko langileen kasua.

### **4.- Prebentzio neurriak hartzea**

- Suteen aurkako sistemak instalatzea eta mantentzea, honako ikastegi hauetan:
  - 1- Esperientzia Gelak
  - 2- I ikasgelategia
  - 3- II ikasgelategia
  - 4- Arte Ederretako Fakultatea
  - 5- Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
  - 6- Zientzia eta Teknologia Fakultatea
  - 7- Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola (Elkano)
  - 8- Bilboko Ingeniaritza GET
  - 9- Ingeniaritza Teknikoko UE (La Casilla)
  - 10- Liburutegi nagusia
  - 11- Miguel de Unamuno ikasle egoitza
  - 12- Irakasleen Unibertsitate Eskola
  - 13- Medikuntza Fakultatea
  - 14- Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritzako UE
  - 15- Nautika eta Itsas Makineria GET
  - 16- Errektoretza eraikina
  - 17- Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea
  - 18- Sarrikoko txaletak
  - 19- Erizaintzako UE

20- Aula Magna

21- Galdara gela

- Arrisku biologikoa duten laborategiak ikuskatzeko txostenen emaitzak ikusita, euste mailaren berri emateko seinale berriak jarri ditugu zenbait laborategitan, bai aurretik seinalerik ez zegoelako, bai euste maila aldatu delako.
- Intsektuen aurkako sareak jarri ditugu arrisku biologikoa duten laborategi guztietan.
- Segurtasun baliabideak instalatu ditugu, hala nola begiak garbitzekoak, duxak, eta abar.

Ebaluazioen ondorioz, eta, zentro esperimentaleko erabiltzaile guztiei zerbitzu emateko asmoz, Diphoterine-a jarri dugu atezaindegietan eta leku estrategikoetan, honako eraikin hauetan:

- ✓ Ingeniaritza GET
- ✓ Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE
- ✓ Bilboko Ingeniaritza Teknikoko UE
- ✓ Medikuntza eta Odontologia Fakultatea
- ✓ Zientzia eta Teknologia Fakultatea

## 5.- Enpresa jarduerak koordinatzea

Enpresa jarduerak koordinatzeari buruzko 171/2004 EDk (Lan Arriskuen 31/1995 Legearen 24. artikulua) garapena) dioenez, gutxieneko arauak nahitaez bete behar dira, langileen segurtasuna eta osasuna ahalik eta hobekien babesteko. Honako helburu hauek betetzea du xede:

- a. Lantokian parte hartzen duten enpresek prebentzio neurrien printzipioak koherentziaz eta erantzukizunez aplikatzea, Lan Arriskuen 31/1995 Legearen 15. artikuluari jarraituz.
- b. Lantokian parte hartzen duten enpresek lan metodoak egoki aplikatzea.
- c. Lantokiko jardueren interakzioak kontrolatzea; bereziki, arrisku larriak edo oso larriak eragin ditzaketen kasuetan, edo lantokian elkarren artean bateraezinak diren jarduerak garatzen diren kasuetan (langileen segurtasunean eta osasunean eragina izan dezaketelako).
- d. Lantokiko arriskuak eta arriskuen prebentziorako neurriak egokitzea, baldin eta lantokian parte hartzen duten langileak kaltetu baditzakete.

Horretarako, UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuak prozedura bat landu du, UPV/EHUko instalazioetan jardueraren bat egiten duten kanpo erakundeek (publikoak zein pribatuak) helburu horiek arrakastaz bete ditzaten. Hala, prozedura bera aplika daiteke unibertsitateaz kanpoko langileen jardueretan.

## 6.- Larrialdi planak

### 6.1.- Larrialdi planen txostenak eguneratzea

2010. urtean, Zientzia eta Teknologia Fakultateko larrialdi plana eguneratu dugu. Hala, fakultateko ebakuazio bideak aldatu ditugu, eraberritze edo/eta zabaltze lanak direla eta.

Errektoretza eraikineko Autobabeserako Plana enkargatzea, 2011ko lehen hiruhilekoan aurkezteko asmoz.

### 6.2.- Ezarpena: prestakuntza eta simulazioak

IKASTEGIA	SIMULAZIOAREN DATA	LARRIALDI PLANAK EGUNERATZEA
EKONOMIA ENPRESA ZIENTZIEN F.	ETA 2010-02-19	2008ko apirila

#### IKASTEGIAREN DATU OROKORRAK:

- JARDUERA: IRAKASKUNTZA
- HELBIDEA: Agirre lehendakariaren etorbidea, 83
- UDALERRIA: 48015 BILBO
- LURRALDEA: BIZKAIA
- TELEFONOA: 94 601 2000 FAXA: 94 601 3892
- SIMULAZIOAREN DATA: 2010-02-19
- LARRIALDI MOTA: SUTEA

Larrialdia gertatu den eraikinean alarmak jotzen duenetik fakultateko bi eraikinak ebakuatzen diren arte, 13 minutu igarotzen dira. Oro har, ebakuazioa modu txukun batean eginez gero, eraikin horietan daudenek (langileak direnak eta ez direnak) LARRIALDIETAKO ZUZENDARIAren eta EBAKUAZIO ETA ALARMA ARDURADUNen argibideei jarraitzen diete.

Kanpo zerbitzuek egoki laguntzen dute: udaltzaien patruila bat eta Bilboko suhiltzaileen prebentzio zerbitzuko arduradun bat etortzen dira.

2010ean, zenbait bilera egin ditugu UPV/EHUko ikastegietako larrialdi planak ezartzeko eta haien jarraipena egiteko arduradunekin. Emaidza gisa, kasu askotan, autobabeserako batzordeetako kideak izendatu ditugu, eta honako talde hauek eratu ditugu: lehen esku-hartzea, ebakuazioa eta alarma, eta kontrolgunea.

## 7.- Aldian behingo kontrolak. Segurtasun ikuskatzeak

Suteen aurka babesteko sistemak bi aldiz berrikusi ditugu, eta baita campuseko ikastegi guztietako seinaleak ere. Ebakuazio bideak berrikusi eta egokitu ditugu, larrialdi plan berriei jarraituz.

Bestalde, Leioako Campuseko hidrante sarea berrikusi dugu.

## 8.- Arauzko ikuskatzeak

Industria arloko araudia bete behar duten guneak ikuskatu ditugu, Arkitektura eta Obra Zerbitzuak kudeatuta.

## 9.- Higiene neurketak. Kutsagarri kimikoen arriskuak kontrolatzea

Ingurumen neurketak egin ditugu Zientzia eta Teknologia Fakultateko ikerketa laborategietan. Fakultateko sailei jakinarazi diegu bazegoela neurketak egiteko aukera, ebaluatzeko produktuen berri eman zezaten. Hona hemen aztertu ditugun sailen zerrenda:

Biokimika eta Biologia Molekularra Saila

Inmunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia Saila

Kimika Analitikoa Saila

Kimika Organikoa II Saila

## AGENTE BIOLOGIKOEKIN LAN EGITEN DUTEN LABORATEGIAK. ZIURTAGIRIAK

Agente biologikoen eta Genetikoki Eraldatutako Organismoen lan egiten duten laborategiak lehen aldiz ikuskatu ondoren, bigarren ikuskatze saio bat egin genuen azaro-abenduetan, laborategiei behin-behineko ziurtagiriak emateko asmoz.

<b>Ikastegia</b>	<b>Kodeak</b>	<b>Ziurtagiri mota</b>
<b>Medikuntza F.</b>	<b>EHU-BM-001 AL EHU-BM-029</b>	<b>BEHIN-BEHINEKOA</b>
<b>Erizaintzako UE</b>	<b>EHU-BE-001</b>	<b>BEHIN-BEHINEKOA</b>
<b>Zientzia eta Teknologia F.</b>	<b>EHU-BZ-001 AL EHU-BZ-024</b>	<b>BEHIN-BEHINEKOA</b>

## 10.- Istripuak eta gertakariak ikertzea

Osasun Arloan jasotako istripuak ikertu ditugu. Ez da istripu larririk izan. Arreta berezia eman diegu laborategietan eta Mantentze Zerbitzuan izandako istripuei, prebentzio neurriak proposatzeko asmoz.

## 11.- Beste batzuk

Mantalak garbitzeko zerbitzu berria (laneko arropa).

## 2.3.- INGURUMENAREN KUDEAKETA

UPV/EHUko Ingurumen Kudeaketako teknikariaren txostena aurkeztu dugu. Hain zuzen, UPV/EHU<sup>n</sup> 2010. urtean ingurumenaren kudeaketaren arloan egindako lanaren deskripzioa biltzen du, zenbait ataletan banatuta:

### 2.3.1.- JARDUERAK

- a) Hondakin toxikoak kudeatzea
- b) Hondakin sanitarioak kudeatzea
- c) Hondakin erradioaktiboak kudeatzea
- d) EKOSCAN ingurumen ziurtagiria
- e) Gasteizko IIAG<sup>n</sup> hondakinak kudeatzeko prozesua abian jartzea
- f) Hondakinak kudeatzeari dagokionez, kanpo enpresa kudeatzaile bat kontratatzeke deialdi publikoa prestatzea
- g) Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Batzordeak
- h) Hondakinen barne kudeaketarako aplikazio informatiko bat prestatzea

### 2.3.2.- UPV/EHUko INGURUMEN EGOERARI BURUZKO ONDORIOAK

#### 2.3.2.1.- JARDUERAK

- a) HONDAKIN TOXIKO ETA ARRISKUTSUAK KUDEATZEA

EKONOR enpresarekin sinatutako kontratua betetze aldera, hondakinak hiru hilabetetik behin bildu ditugu halako hondakinak sortzen dituzten ikastegietan, EKONOR<sup>en</sup> bitartez. Ikastegietan hondakinak pilatu diren kasuetan, hondakin horiek bildu egin ditugu, ikastegiek eurek hala eskatuta.

**I. taulan**, hondakin mota horren kopuruak adierazi ditugu, ikastegika; **I. grafikoan**, UPV/EHUko hondakinen bilakaera ikus daiteke.


- b) HONDAKIN SANITARIOAK KUDEATZEA

ELIRECON enpresarekin sinatutako kontratua betetze aldera, hondakinak hiru hilabetetik behin bildu ditugu halako hondakinak sortzen dituzten ikastegietan, ELIRECON<sup>en</sup> bitartez. Ikastegietan hondakinak pilatu diren kasuetan, hondakin horiek bildu egin ditugu, ikastegiek eurek hala eskatuta. Halako hondakinak biltzeko, hotz instalazioak behar izaten dira (4 °C-tik behera), eta ikastegi guztietan ez dago halakorik; horregatik, ikastegiek eskatuta, aldizka hondakinak biltzen aritu gara.

**II. taulan**, hondakin mota horren kopuruak adierazi ditugu, ikastegika.

I. TAULA	Ing. Tek. (Castilla)	Kimika	Farmazia	Ingeniaritza	Arte Ederrak	IIAG	Letrak	Nautika	Politeknikoa	Korta	Ing. Tek. Gasteiz	Biofisika Erizamza (B)	Zitek	Medikuntza	Zientziak
IDENTIFIKATU DITUGUN LABORATEGIKO ERREAKTIBOAK		442	519	613			21	60		485	51	100	31	624	1.388
DISOLBATZAILE HALOGENATUAK	47	3.975	4.076	655	17				424	3.039	46	168		194	4.951
DISOLBATZAILE EZ HALOGENATUAK		166	467	332	123	23		59		184				479	540
METAL ASTUNAK DITUZTEN DISOLUZIOAK		271	285	572							108				954
DISOLUZIO EZ ORGANIKO ALKALINOAK	6	370	76	450			29		119		6				478
DISOLUZIO EZ ORGANIKO AZIDOAK	882	1.050	619	431	98		77		273	167		23			2.401
BESTE URTSU / LIKIDO EZ ORGANIKO BATZUK			295				49							904	652
HONDAKIN ZIANURATU LIKIDOAK															
LANPARA FLUORESZENTEAK															
ERREBELATZE LIKIDOAK					50							13			57
ELEKTROHIGADURAKO LOHIAK				118											
EMULTSIOAK ETA TALADRINAK	606			371											
SOLIDO ORGANIKO POLIMERIZATUAK		31		37					24	246		46			105
SOLIDO EZ ORGANIKOAK			11						47	50					388
BESTE SOLIDO ORGANIKO BATZUK		117		18					114	122				70	312
MERKURIO METALIKOA				8											
OLIOAK		10	70	15				101			11				19
ONTZI HUTSAK (>= 50 L)															
ONTZI HUTSAK (< 50 L)		72	55	681					69		3			93	222
BERUNEZKO BATERIAK															
PCB LIKIDOA															
PASTAK ETA PINTURAK									65						
KOIKEAK															
FINKATZAILEAK					54									38	
AMANTOA															
DISOL.AZIDO ETA BASIKO SUKOIAK		527								209					
ETIDIO BROMUOAREKIN KUTSATUTAKO MATERIALAK		29	110			29						118		58	110
OSAGAI ELEKTRONIKOAK															
AEROSOL TEKNIKOAK			5												
BEIRAZKO ONTZIAK			2.292	75			19		391	75	13	165	21	11	459
KUTSATUTAKO MATERIALA		68													
OLIO IRAGAZKIAK															
Guztira, ikastegietan	1.541	7.128	8.880	4.376	342	52	195	220	1.526	4.577	238	633	111	42	2.976
<b>GUZTIRA, UPV/EHUn (2010) Kilogramoak</b>	<b>47.305 kilogramo</b>														

## EVOLUCION ANUAL



IKASTEGIA	HONDAKIN EBAKITZAILE ETA ZIZATZAILEA K	HONDAKIN SANITARIOA K	BOTATAKO BOTIKAK	FORMOLEAN KONTSERBATUT AKO HONDAKIN ANATOMIKOAK	GUZTIR A (Kg)
Psikologia Fakultatea. Donostia	218	58			276
BIZKAIKO CAMPUSA	16	188			204
Erizaintzako Unibertsitate Eskola. Donostia	25	10	5	14	54
Erizaintzako Unibertsitate Eskola. Bizkaia	26				26
Farmazia Fakultatea		2.187	142		2.329
Donostiako Eremu Sanitarioa	7				7
Gasteizko Eremu Sanitarioa		5			5
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea		3			3
Neurotek lab.		123			123
KORTA eraikina	7				7
NEUROGENOMIKS		85			85
<b>GUZTIRA (Kg)</b>	<b>299</b>	<b>2.659</b>	<b>147</b>	<b>14</b>	<b>3.119</b>



- c) HONDAKIN ERRADIOAKTIBOEN KUDEAKETA (ENRESAk biltzen ditu)
- d) INGURUMEN ZIURTAGIRIAK

Oraingoz, UPV/EHUko ikastegietan EKOSCAN ingurumen ziurtagiria ezartzen ari gara.

Ingurumen Kudeaketako teknikariak ikastegietako hobekuntza taldeetan parte hartzen du, eta talde horiek hobekuntza jarduerak erabaki eta jarduera horiek zer mailataraino betetzen diren aztertzen dute. Jarduera hauen bidez, ikuskaritzak gainditzen dira, eta horri esker lortzen dute ikastegiek EKOSCAN ziurtagiria.

2010ean, UPV/EHUko ikastegiek ondorengo ikuskaritzak gainditu dituzte:

<b>IKASTEGIA</b>	<b>1. ikuskaritza</b>	<b>2. ikuskaritza</b>	<b>3. ikuskaritza</b>	<b>4. ikuskaritza (plus)</b>	<b>5. ikuskaritza (plus)</b>
Psikologia Fakultatea (Gipuzkoa)		Urtarrila			
Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola (Gipuzkoa)					Urriak 10
Erizaintzako Unibertsitate Eskola (Gipuzkoa)		Martxoak 10			
Unibertsitate Eskola Politeknikoa (Gipuzkoa)				Apirilak 30	
Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza			Maiatzak 24		
Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola					Abenduak 2
Ikasgelategia (Gipuzkoa)		Abenduak 30			

- e) HONDAKINEN KUDEAKETA MARTXAN JARTZEA GASTEIZKO IIAGn

Gasteizko Campuseko Ikerketa eta Ikasketa Aurreratuen Gune berria 2009ko azaroaren 26an inauguratu zen, eta, bertan, sektoreko teknologiarik aurreratuenak dituzten hainbat laborategi daude.

Hondakin toxikoak, arriskutsuak eta sanitarioak sortzen dituzten ikerketa jardueretarako lizentziak lortzearen, ondorengo izapideak egin dira ingurumen arloko organoan:

- ekoizle txikien zerrendan izena emateko eskaera bideratu da.
- hondakin sanitarioen kudeaketa plana aurkeztu da eta aipatu organoak onartzeko eskaera egin da.

2010eko ekitaldian, ingurumen arloko organoaren eskakizunei erantzunez, aipatu izapideak egin ditugu, eta, une honetan, behin betiko berrespena jaso zain gaude.

- f) HONDAKINAK KUDEATUKO DITUEN KANPO ENPRESA BATEN KONTRATAZIO PUBLIKORAKO PROZEDURA PRESTATZEA

Egun hondakinak kudeatzen dituen baimendutako enpresarekiko (EKONOR) kontratua 2010eko abenduaren 31n amaituko denez, lehia aske bidez enpresa bera edo beste bat kontratatzeko preskripzio teknikoen orria prestatu dugu, azken urteotako funtzionamenduan antzemandako beharrei erantzunez. Orri horretan, UPV/EHUn sortutako hondakin toxiko eta arriskutsuen kudeaketa hobetzeko irizpideak eta arauak jaso ditugu.

g) LAN ARLOKO SEGURTASUN ETA OSASUN BATZORDEAK

Ingurumen Kudeaketako teknikaria hiru campusetako Lan Arloko Segurtasun eta Osasun Batzordeen bileretara joan da, baita Bizkaiko Campusean aurretik egin diren prestakuntza bileretara ere.

h) HONDAKINEN BARNE KUDEAKETARAKO APLIKAZIO INFORMATIKOA GARATZEA

UPV/EHUko hondakinen barne kudeaketarako jarraitutako protokoloa bizkortzearen, IISIGekin elkarlanean aplikazio informatiko bat prestatu dugu. Horren bidez, hondakinak sortu dituen erabiltzaileak bil ditzaten eska dezake UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuaren webgunean jarritako goitibehera zerrenda batean. Informazio hori zuzenean Ingurumen Kudeaketako teknikariari iristen zaio, eta honek kanpoko kudeaketa enpresa baimenduari helarazten dio (2010eko ekitaldian enpresa EKONOR izan zen).

**UPV/EHUko INGURUMEN EGOERARI BURUZKO ONDORIOAK (2010)**

Erabiltzailearen gogobetetasunaren ikuspegitik, egungo egoera ona da. Ingurumenaren egoerarekiko kontzientziazio maila hobetu behar dugu, eta, beraz, etorkizunean landu egin beharko dugu, beste zenbait gairen artean. Gaur egun, ingurumen arloko jarduerak indarreko arautegia bete behar delako sustatzen dira; gauza bera gertatzen da hondakinen kudeaketarekin, jarduera lizentziekin edo kalitate eskakizunekin ere.

3.-

# PRESTAKUNTZA

2010eko urtarrila / 2010eko abendua ZEIN CAMPUSETAN?	IZEN EMATE KOP.	ORDU KOPURUA
ARABA	105	556,00
BIZKAIA	1.147	4.446,00
GIPUZKOA	190	800,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.442</b>	<b>5.802,00</b>

2010eko urtarrila / 2010eko abendua IKASTAROA	IZEN EMATE KOP.	ORDU KOPURUA
Actuación en caso de incendio	306	656:00:00
EKOSCAN: certificado de calidad ambiental	25	170:00:00
Estiramiento global activo	74	376:00:00
Formación en drogodependencias: habilidades del personal universitario para promover prácticas saludables con jóvenes universitarios	27	288:00:00
Funcionamiento de Centrales contra incendios	52	52:00:00
Gestión de residuos tóxicos, peligrosos y sanitarios	110	366:00:00
Gestión del estrés	104	620:00:00
La seguridad en los laboratorios universitarios de investigación química.	19	76:00:00
Planes de autoprotección	107	528:00:00
Prevención del cáncer y de enfermedades cardiovasculares	34	224:00:00
Primeros auxilios	271	1208:00:00
Riesgo biológico	68	308:00:00
Seguridad en laboratorios	144	608:00:00
Seguridad sobre la utilización de botellas de gases	49	200:00:00
Trabajo con pantallas de visualización de datos (PVD). Conceptos de ergonomía	52	122:00:00
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.442</b>	<b>5.802</b>

2010ean emandako ikastaroei buruzko xehetasunak biltzen dituzten taulak erantsi ditugu.

Horietan adierazitakoez gain, 39 bekadun ere izan dira arrisku biologikoko ikastaroan, 57 laborategiko segurtasunari buruzkoan, eta 62 hondakinen kudeaketari buruzkoan.

Bestalde, *Campus*a aldizkarian, “Aholkuak” atalean, arriskuei aurrea hartzeko material didaktikoa eskaini genuen 2010eko ale guztietan. Material hori hartuta, dibulgaziozko posterrak prestatu ditugu.

4.-

ERANSKINAK

**EBAZPENA, 2003ko APIRILAREN 7koa, UPV/EHUko ERREKTOREARENA, UPV/EHUren BERAREN PREBENTZIO ZERBITZUA ERATU, ANTOLATU ETA ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUA ZEHAZTEKO DENA.**

Azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, indarrean jartzeak aldaketak eragin ditu administrazio publikoetan, lanpostuko arriskuen prebentzioaren bidez langileen osasuna babesteko politiken arloan, hain zuzen ere; izan ere, lege hori laneko araudi ez ezik, funtzionario publikoen estatutueta oinarritzko araudi ere bada.

Azaroaren 8ko 31/1995 Legea garatzeko, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzeko, argitaratu zen, eta errege dekretu horretako 14. artikuluan zehaztuta dago 500 langiletik gora dituzten enpresek beren prebentzio zerbitzua eratu behar dutela, eta eratu ez ezik, prebentzioaren arloko jarduerak betetzeko beharrezko diren giza baliabide eta baliabide materialak ere izan beharko dituztela.

Hori guztia kontuan hartuta, langileen ordezkariak kontsulta egin ondoren UPV/EHUko Campus Arteko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzordearen bidez, 2003ko martxoaren 7an CCOO, CSIF, ELA, LAB, STEE-EILAS eta UGT sindikatueta prebentzioko ordezkariekin adostu ondoren eta eman dizkidaten eskumenen babesean, honako hau

**EBATZI DUT:**

Lehenengoa.- Prebentzio Zerbitzua eratzea.

UPV/EHUren Prebentzio Zerbitzua osatuta dago eta gerenteari atxikita egongo da.

Bigarrena.- Definizioa eta helburua.

UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzua prebentzioaren arloko zeregina betetzeko beharrezko diren giza baliabide eta baliabide materialez osatuta dago, horien bidez unibertsitateko kideei babesa emateko segurtasun eta osasunaren arloan. Zeregin horiei jarraituz, aholku eta laguntza emango diete administrazioari, langileei, horien ordezkariak eta campusetako eta campus arteko laneko segurtasun eta osasun batzordeei.

Hirugarrena.- Jarduera eremua.

Prebentzio Zerbitzuak UPV/EHUko langile guztiei eragiten die.

UPV/EHUko errektoreak eta gerenteak zehaztu eta zainduko dituzte laneko segurtasun eta osasunaren arloko helburuak, unean uneko indarreko araudiari jarraituz.

Laugarrena.- Baliabide materialak eta aurrekontua.

Aurrekontu sail berariazkoak zehaztuko dira programa bakoitzerako, UPV/EHU prebentzio jarduerak abian jarri, egoki bete eta neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko, eta prebentzio jarduerak betetzeko beharrezko instalazio eta baliabide materialak eskuratzeko, betiere, aurrekontuei buruzko araudiari jarraituz.

Bosgarrena.- Antolaketa.

1.- Prebentzio Zerbitzua bi arlotan banatuta egongo da: Osasun Arloa eta Arlo Teknikoa. Zerbitzuan, beraz, alor desberdinetakoak arituko dira, baina elkarlanean arituko beharko dira urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzekoak, 15. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

1.1. Osasun Arlokoen zereginak laneko osasun, ergonomia eta psikosoziologia aplikatuarekin lotutako espezialitateei dagozkienak izango dira. Zeregin horiek betetzeko, eta indarreko araudiari jarraiki, Oinarrizko Osasun Unitateak (OOU) izango ditu, hau da: UPV/EHUK gaur egun dituen hiru campusetako bakoitzak Oinarrizko Osasun Unitate bat izango du.

Gaur egun UPV/EHUKo Osasun Zerbitzuan diharduten mediku eta erizainak Osasun Arloan sartuko dira. Arlo horrek arduradun bat izango du koordinazio lana egiteko.

1.2. Arlo Teknikoan unibertsitateko goi mailako lau titulatu arituko dira: Araba eta Gipuzkoako campusetan titulatu bana eta Bizkaikoan bi. Urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuko VI. kapituluan jasotakoarekin bat, prestakuntza egokia izan beharko dute goi mailako eginkizunak betetzeko prebentzioko berezitasun eta diziplinaren arloan, laneko segurtasunari eta industria higieneari dagokienean, hain zuzen.

UPV/EHUKo gaur egungo prebentzioko teknikariak Arlo Teknikoan sartuko dira. Arlo horrek arduradun bat izango du koordinazio lana egiteko.

2.- Prebentzio Zerbitzuak zerbitzuburu bat izango du koordinazio eta gestio lanak egiteko.

3.- Arkitektura eta Obra Zerbitzua elkarlanean arituko da Prebentzio Zerbitzuarekin, batez ere unibertsitateko azpiegituretan, sarreretan, eraikinen edo instalazioen segurtasunean, ebakuaziorako sistemetan edo antzekoetan neurri zuzentzaileak edo hobekuntzarako bitartekoak ezartzeko edo horien inguruko proposamenak egiteko.

4.- Kontratazio eta Erosketa Zerbitzua elkarlanean arituko da Prebentzio Zerbitzuarekin, indarreko araudia betetzeko beharrezkoak diren ekipamenduak lortzeko, hain zuzen.

5.- Prestakuntzako arduradunak ere elkarlanean arituko dira Prebentzio Zerbitzukoekin laneko arriskuen prebentzioaren arloan beharrezkoak diren prestakuntza planak prestatu eta antolatzeko.

6.- Gerenteak koordinazio lanak eginda, UPV/EHUKo beste edozein zerbitzu edo langile (batez ere, irakasle eta ikertzaileak) aritu ahal izango da Prebentzio Zerbitzuarekin lankidetzan aholku emateko eta prestakuntza planak osatu, antolatu eta emateko. Era berean, Prebentzio Zerbitzuarekin elkarlanean aritu ahal izango dira arloan ospea duten beste profesional edo erakunde batzuk ere, aholku edo/eta prestakuntza emateko.

Seigarrena.- Osasun Arloaren eginkizunak.

1.- Osasun Arloaren eginkizunak dira osasuna zaintzeko beharrezkoak diren zereginak betetzea, baita ergonomia eta psikosoziologia aplikatuarekin lotutakoak ere.

UPV/EHUKo Prebentzio Zerbitzuak, osasuna zaintzeari dagokionez, honako hauek izango ditu oinarri: prebentzio zerbitzuen osasun jardueri buruzko araudia (uztailaren 27ko 306/1999 Dekretua; 1999ko abuztuaren 20ko EHAA, 159 zk.) eta ergonomia eta psikosoziologia aplikatuari buruzkoa. Arlo honen eginkizunak, beraz, honako hauek izango dira:

- a) Osasuna zaintzea eta sustatzea: osasun azterketak egitea; osasuna zaintzeko hartutako neurrien bidez eta arriskuen ebaluazioaren ondorioz lortutako emaitzak aztertzea; haurdun dauden edo erditu berri duten emakumeek eta egoera jakin batzuetan aparteko sentikortasuna duten langileek dituzten arriskuen azterketak egitea; lehen laguntzak eta premiazko arreta antolatzea eta ematea.
- b) UPV/EHUKo langileen osasunarekin zerikusia duten faktoreen ondorioz eragindako lan hutsegiteak gestionatzea eta kontrolatzea, eta hori horrela egingo da helburu bakarrarekin: gaixotasuna edo laneko hutsegitea eragin duen faktorearen eta lantokiak osasunerako izan dezakeen arriskuaren artean izan daitekeen lotura aztertzea.
- c) Zaintza epidemiologikoa.

- d) Giza harremanak, estresa eta depresioa.
- e) Laneko baldintzak antolatzea, lanpostuen diseinua egitea, esfortzu mugak eta laneko giroa.
- f) Lortutako emaitzak aztertzea.
- g) Agintzen dizkioten antzeko beste eginkizun batzuk, baita indarreko araudian zehaztutakoak ere.

Behar bezalako akreditazioa eta baimena duten zentro espezializatuekin azpikontratatu daitezke zerbitzuko oinarrizko osasun jardueraz gaindiko zenbait jarduera, esaterako, diagnostikorako teknika osagarriak.

Zazpigarrena.- Arlo Teknikoaren eginkizunak.

1.- Arlo Teknikoari honako hauek dagozkio:

- a) UPV/EHUko zentroetako arriskuen ebaluazioa egitea.
- b) Osasun Arloarekin zerikusirik ez duten prebentzio jarduerak planifikatzeaz gain, horretarako beharrezkoak diren programak eta planak egitea.
- c) Istripuak eta ezbeharrak ikertzea, arrazoiak zeintzuk izan diren jakiteko eta, aurrerantzean, horiek saihesteko.
- d) Ikuskaritza lana egitea.
- e) Industriako segurtasun eta higienearen arloko estatistikak egitea.
- f) Jarduera zuzentzaileak proposatzea.
- g) Larrialdietarako planak diseinatzea eta planak egiteko lanak koordinatzea.
- h) Arlo honetako prestakuntzarako proposamenak egitea.
- i) Ikuskaritza teknikoak eta gestiokoak egingo ditu, adibidez: prozeduren kontrola, praktika operatiboak, segurtasuneko arauak, obra berriak.
- j) Indarreko araudiari jarraituz izan ditzakeen beste batzuk.

2.- Arlo Teknikoak laneko segurtasunaren arloan prebentzioarekin eta industria higienearekin zerikusia duten eginkizunak izango ditu, eta zeregin batzuetarako behar bezala akreditatutako edo baimendutako zentro espezializatuak azpikontratatu ahal izango ditu.

Zortzigarrena.- Prebentzio Zerbitzuko buruaren eginkizunak.

1.- Prebentzio Zerbitzuko buruari honako hauek dagozkio:

- a) Prebentzio Zerbitzuko arlo biak koordinatzea eta zuzentzea.
- b) UPV/EHUn osasuna sustatzeko eta laneko arriskuak prebenitzeko beharrezkoak diren jarduerak bultzatzea.
- c) Langileentzako informazio programak eta prestakuntza planak egitea.
- d) Arriskuen ebaluaziorako prozesua zuzentzea.
- e) Neurri zuzentzaileak planifikatzea eta ezartzea, batez ere, UPV/EHUko beste zerbitzu batzuk ere parte hartu behar dutenean.
- f) Prebentzio Zerbitzuan sortuko diren erregistro guztien gestioaren eta zaintzaren ardurak izatea.
- g) Laneko arriskuen prebentzioarekin lotuta beharrezkoak diren jarduerak egitea, gerenteak gainbegiratuta.
- h) Prebentzio Zerbitzuaren urteko txostena egitea.
- i) Prebentzioko neurriak ezartzeko lehentasunak zehaztea eta neurri horien eraginkortasuna kontrolatzea.
- j) Prebentziorako eskuliburuak eta prozedurak argitaratzeko eta banatzeko lanak zuzentzea.



k) Prebentzio Zerbitzuaren web gunea zuzentzea eta gainbegiratzea.

Bederatzigarrena.- UPV/EHUko ikastegien parte-hartzea.

1. UPV/EHUko ikastegietako dekanok eta zuzendariak, administratzaileekin batera, honako zeregin hauek dituzte:

- a) Ikastegian batzorde bat eratzea Prebentzio Zerbitzuarekin lotuta Gerentziak zehaztutako programa eta sistemak ezartzeko, horien bidez laneko segurtasun eta osasunari buruzko xedapenak eta araudia betetzeko.
- b) Ikastegiko langileen kexa, eskaera eta iradokizunak konpontzea. Zailtasun teknikoak edo bestelakoak direla-eta hori posible ez bada, Prebentzio Zerbitzuko buruari emango diote guztiaren berri.

2. Ikastegian istripu edo ezbeharren bat dagoenean, administratzaileak berehala jakinaraziko dio Prebentzio Zerbitzuko buruari, eta horrek, era berean, Campuseko Segurtasun eta Osasun Batzordeari emango dio horren guztiaren berri.

Hamargarrena.- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko kultura zabaltzea.

Kontuan izanda zein sakabanatuta dauden eta zein sare nahasia eraten duten UPV/EHUko ikastegiekin, jarduerak antolatuko dira ikastegietako langile batzuekin prebentzioaren arloko oinarrizko prestakuntza izan dezaten, eta prestakuntza hori oinarri hartuta UPV/EHUko gainontzeko langileen artean laneko arriskuen prebentziorako kultura hedatu dezaten.

Hamaikagarrena.- Campuseko errektoreordearen, Ikerketako errektoreordearen, Kalitate Katedrako titularraren, Pertsonaleko gerenteordearen eta campusetako gerenteordeen jarduerak.

Aipatutako errektoreordeek, gerentearekin batera, eta kontuan izanda bakoitzaren eskumenak, laneko segurtasun eta osasunaren arloko eta ingurumenaren arloko baldintzak hobetzeko beharrezkoak diren jarduerak zehaztuko dituzte.

Jarduera horien gestioa campuseko gerenteordearen edo Pertsonaleko gerenteordearen ardura izango da, kontuan izanda bakoitzak dituen eskumenak. Lan hori Prebentzio Zerbitzuko buruarekin elkarlanean egingo dute.

Campuseko gerenteordearen kasuan, aipatutako gestioa Prebentzio Zerbitzuko buruarekin elkarlanean egiteaz gain, Osasun Arloak eta Arlo Teknikoak campusean dituen kideen laguntza ere izango du.

Kalitate Katedrako titularrak eta campusetako Kalitate Programak Bultzatzeko zuzendariak, beren jardueren esparruan, lehentasuna emango diete UPV/EHUko laneko segurtasuna eta osasuna, eta ingurumena hobetzeko jarduerari.

Alor honetako erabakiak hartzeko eta gestioa egiteko, aipatutako agintariak beren eskumenen arloei dagozkien txostenak eska diezazkiokete Prebentzio Zerbitzuko buruari.

Hamabigarrena.- Campuseko eta campus arteko laneko segurtasun eta osasunerako batzordeak.

Prebentzio Zerbitzuko jarduerak campuseko eta campus arteko laneko segurtasun eta osasunerako batzordeekin elkarlanean egin beharko dira. Prebentzio Zerbitzuari erabaki honen bidez eman zaizkion eskumenak ez dira izango aipatutako batzordeek dituzten eskumenen kalterako, eta, edozelan ere, indarreko araudian, Lan Baldintzak Arautzeko Akordioan, Hitzarmen Kolektiboan eta arloko gainerako araudian zehaztutakoa bete beharko dute.

Hamahirugarrena.- Indarrean sartzea.

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Manuel Montero

Errektorea